



Orioko Udaleko aginte makila. Bi aste barru hartuko dituzte alkate berriek beren ardurak. AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Ekainaren 17an udalbatzak osatu eta aginte makilak hartuko dituzte

Udal hauteskundeak igaro berri, herri gehienetan ziurtatuta dago nor izango den Udal Gobernuan • Azkoitian eta Zarautzen, akordioak beharko dira aginte makila nork hartuko duen erabakitzeko //2

Azpeitia Festak ospatuko dituzte Sanjuandegi eta Nuarbe auzoetan datozen egunetan; askotariko ekintzak izango dira //7



Aurrekontu
personalizatuak

Sukalde, bainugela
eta etxeko instalazio
elektrikoen **berrikuntzak**

ETXEO
BERRIKUNTZAK

TELUKOMUNIKAZIOAK

INSTALAZIO
ELEKTRIKOAK

ARGIZTAPENA

DEKORAZIOA

KONPONKETAK

ANTENAK

Zigordia kalea, 11 • Araba kalea, 41 (Eroski ondoan) **ZARAUTZ** • 943-13 04 33 - 943-13 33 08 - 619 52 35 39
azkuelek.com • azkuelek@gmail.com •  

Mirotza sariak Orio Eraginentzat eta Jokin Altunarentzat

Orio Arraunketa Elkarteak antolatutako Garagardo Azokaren barruan egin diete aitortza eskubaloi taldeari eta pilotariari. Garaikurra «ohorea» dela adierazi dute //6



Artxiboko irudian, Anuska Esnal Orioko alkate ohi Jose Angel Zalduaren eskutik aginte makila hartzen. UROLA KOSTAKO HITZA

Udal Gobernuak osatu eta aginte makilak hartuko dituzte ekainaren 17an

Akordioetarako tarte gutxi utzi dute herri gehienetan boz emaileek • Gorakada nabarmena izan du EH Bilduk ia herri guztietan • Zabalik da akordioak egiteko epea

—MARIA MAYA MANTEROLA

Hauteskundearen biharamunean udal gobernuak nola osatu, hori da herritarren eta politikariengan sortu den zalantza nagusia. Nahiz eta bailarako herri gehienetan, gehiengo osoak medio, herritarrek erabaki duten alkate makila nori eman, akordioak egiteko tarte utzi dute emaitez Azkoitia eta Zarautzen. Ekainaren 17an, larunbata, egingo dituzte kargu hartze ekitaldiak eskualdeko herri guztietan.

Zarautzen, alderdi bozkatuenak izan diren EAJk -4.774 boto- nahiz EH Bilduk -4.534 boto- egingo dute PSE-EEren babesa lortzeko ahalegina alkatetza eskuratu ahal izateko. Sozialistek dute herri horretan gobernu osatzeko giltza, eta horretaz jakitun dira. Pentsatzekoa da, azken bi agintaldietako bideari eutsiz, jeltzaleek eta sozialistek berriro osatuko dutela gobernu elkarrekin. Dena den, Gloria Vazquez PSE-EEren alkategaia- ren hitzetan, «oraindik goiz» da hori esateko: «Alderdien artean hitz egiteko unea da orain, baina argi dago giltza gu garela».

Zentzu horretan, Xabier Txurruka EAJren alkategaia adierazi du gainerako alderdi guztiekin jarriko direla harremanetan «alderdi garailea» izan direlako, eta guztia «airean» dagoela une honetan. Edonola ere, Txurru- kak garbi du sozialistak izango direla gakoak: «Alderdi sozialistak erabakiko du nor den Zarauzko hurrengo alkatea».

Bide beretik, Itziar Murua EH Bilduren alkategaia onartu du eurek ere egingo dutela sozialisten babesa lortzeko ahalegina.

EAJk irabazi ditu udal hauteskundeak Azkoitia ere, baina airean da alkatetza zeinen esku geratuko den. Izan ere, alderdi jeltzaleak 2.003 boto eskuratu ditu udal hauteskundeetan (botoen %38,20), eta zazpi zinegotzi izango ditu; beraz, ez du gehiengo osorik. EH Bildu izan da bigarren indarra, 1.848 boto eskuratu (%35,24); horrenbestez, sei ordezkari izango ditu udalean, gaur egun baino bat gutxiago. Ordea, Azkoitia Bai-Elkarrekin taldea izan da Azkoitiko udalbatza- ren argazkia irauli duena, 810 boto eskuratu (%15,44), hiru

eserleku lortu baititu -egun baino bi gehiago-. Beraz, plataformak izan dezake datorren agintaldiko Udal Gobernu erabakitzeko giltza. Azken agintaldian EAJren gobernuak izan den PSE-EEK ere izango du hitza; zinegotzi bati eutsi dio alderdi horrek, 438 boto lortuta (botoen %8,35).

Ziurtatutako gobernuak

Aian, esaterako, duela lau urteko joera bera errepikatu da. EAJ izan da boto gehien eskuratu dituen alderdi; 486 boto, hain zuzen ere. 2019an baino 63 boto gutxiago eskuratu dituzte jeltzaleek, dena den. Bestetik, 2019ko datuekin alderatuz, behera egin du EH Bilduk ere, 385 boto jaso- ta; 417 lortu zituen azken hauteskundeetan. Hortaz, sei zinegotzi lortu ditu EAJk Aian, eta lau EH Bilduk. Aiaiko Batzarre Burujabatzak, berriz, 105 boto lortu ditu; beraz, zinegotzi bat izango du udalean datozen lau urteetan. Beraz, aiarrek hala erabakita, EAJko Jon Ander Azpirozek eskuratuko du aginte makila.

Aizarnazabalen, boto kopurua

jaitsi arren, alkatetza ziurtatu du EH Bilduk beste lau urterako. Aurreko agintaldiko zinegotzi kopuruari heldu dio koalizioak; sei lortu ditu, eta beraz, Mari Karmen Arregi izango da alkatea. EAJk, berriz, eserleku bat lortu du udalean, aurreko agintaldian bezalatsu.

Orotara, 384 aizarnazabal- rrek eman zuten botoa. EH Bilduk botoen %79,41 jaso ditu -301 boto-, eta EAJk, berriz, botoen %13,98 -53 boz-. PSE-EE taldeak, berriz, zortzi boto lortu ditu, botoen %2,11.

Zarautzen eta Azkoitia izan ezik, ziurtatuta daude gainerako alkatetzak

Bigarrenagotz jarraian, Nagore Alkorta izango da Azpeitiko alkatea. Izan ere, hamar zinegotzi eskuratu ditu EH Bilduk, eta jeltzaleek, berriz, zazpi. Bi alderdi horiek osatuko dute udalbatza, gainerakoek -PSE-EEK, Elkarrekin Podemosek eta PPK- ez baitute ordezkariak lortu.

Bestalde, Pedro Otaegik hartuko du kargua Beizaman, boz emaileen boto guztiak Aurrena Beizama Bai herri plataformak eskuratu ondoren. Udaleko bost jarlekuak, beraz, plataformako kideek hartuko dituzte. Udal bozetara 111 herritar zeuden boza ematera deituta, eta horietatik 79k eman dute botoa; hau da, herritarren %71,17k.

EH Bildu izan da nagusi Errezilen ere, 189 boto eskuratu. Udala osatzeko zazpi jarleku zeuden jokoan; horietatik bost EH Bildurentzat izango dira, eta beste biak Errezilgintzarentzat. Beraz, Koldo Arzallus izango da Errezilgo alkatea, gehiengo osoa lortuta.

2019an baino boto gutxiagorekin bada ere, EH Bildu izan da nagusi Getarian ere, eta beraz, Haritz Alberdik ziurtatu du alkatetza. Guztira, 886 boto eskuratu ditu koalizioak -948 izan ziren 2019an-, eta EAJ izan da bigarren alderdi bozkatuena, botoen %44,66rekin -745 boto jaso ditu, guztira-. Botoen gorabeherak ez du eraginik izan udalbatzako eserleketan, eta beraz, sei zinegotzi izango ditu koalizioak, eta bost jeltzaleek.

EH Bilduren gorakada

Orokorrean, EH Bilduk gorakada izan du eskualdeko herrietan, eta horien artean, aipatzekoa da Orioko kasua. Izan ere, EH Bildu sei zinegotzi izatek hamar izatera igaroko da herri horretan. Duela lau urte baino 700 boto gehiago eskuratu ditu koalizioak, hain zuzen. EAJk bost zinegotzi izan ditu orain arte, eta bi galdu ditu; PSE-EEK, berriz, zuen bakarra galdu du.

Zestoan eta Zumaian ere gehiengo osoarekin hartuko dituzte alkate karguak Mikel Arregik eta Iñaki Ostolazak, hurrenez hurren. Zortzi hautetsi izango ditu koalizioak Zestoan: boto gutxiago jaso arren, handitu egin du bigarren indarrarekiko, jeltzalekiko, tarte. Izan ere, botoen %64,13 eskuratu ditu koalizioak, eta %29,82 jeltzaleek. Azken horiek hiru ordezkari izango dituzte udalean.

Zumaian, gehiengo osoa ziurtatu bakarrik ez, duela lau urte baino hautetsi bat gehiago izango du EH Bilduk udalbatzan. Duela lau urteko boto kopuruari eutsi dio koalizioak, eta 400dik gora boto galdu dituzte jeltzaleek. Sei hautetsi izango ditu, horrenbestez, EAJk. PSE-EEK, berriz, hautetsi bakarrarekin jarraituko du Zumaiaiko Udalean, boto kopuruari eutsita.



UROLA KOSTAKO HITZA

Asteartea, 2023ko maiatzaren 30a

Balorazioak

Urola Kostako udalerrri eta alderdietako zerrendaburuekin hitz egin du HITZA igandeko emaitzez, irabazleetako batzuekin nahiz beste emaitza bat espero zutenekin.



«Oso pozik gaude emaitzekin, eta orain lanean jarraitzea dagokigu»

Mari Karmen Arregi

Aizarnazabalgo EH Bildu

«Oso pozik nago lortu ditugun emaitzekin, eta eskerrak eman dizkiet gudan konfiantza jarri duten herritar guztiei. Abstenzioak gora egin du Aizarnazabalen ere, baina joera orokortua da, eta espero genuen. Hala ere, lortutakoarekin oso pozik gaude, eta lanerako prest. Orain, herriaren alde lanean jarraitzea dagokigu».



«Bozetan jasotako babesak lanean jarraitzeko indarra ematen digu»

Nagore Alkorta

Azpeitiko EH Bildu

«Balorazio oso ona egiten dugu bozen emaitzen inguruan. Abstenzioa hamar puntu igo da, eta horrek zer pentsatua eman behar digu talde politiko guztioi. Agintaldi gogorra pasatu ondoren, gustura gaude egindako lanarekin, eta horren erantzuna jaso dugu. Honek guztiak lanean jarraitzeko indarra ematen digu, aurretik erronka handiak ditugu eta».



«Herritarren babesa jaso dugu, eta babes horri ezin diogu hutsik egin»

Mikel Arregi

Zestoako EH Bildu

«Pozik gaude EH Bilduk emaitza oso onak lortu dituelako Zestoa. Egia esan, ez genuen espero zortzi zinegotzira iristea, zinegotzien banaketa orain arteko seibost [EH Bilduk sei, EAJk bost] izango zela uste genuen. Herritarren konfiantza eskertu beharrean gaude, nola ez. Era berean, konfiantza horrek berarekin darraren erantzukizuna azpimarratu nahi dut. Boto emaitzen babesa jaso dugu, eta orain babes horri erantzutea dagokigu. Herritarrei ezin diegu hutsik egin. Eskualdeko abstentzio handienetakoa Zestoa izan da. Hala ere, boto gutxi batzuk galdu arren, ehunekoetan, boto gehiago lortu ditu EH Bilduk».



«Konbentzituta gaude bide onean aritu eta ari garela lanean»

Iñaki Ostolaza

Zumaiaiko EH Bildu

«Eskerrak eman nahi dizkiet Zumaiaiko herriari udal hauteskundeetan emandako babes guztiagatik. Bagenekien azken lau urteetan gauzak ondo egin genituela eta datorren agintaldirako ere talde ona osatuta genuela, nahiz eta kontu horiek zalantzan jarri dituzten beste batzuek. Gu konbentzituta gaude bide onetik ari garela lanean, eta udal bozetako emaitzek hori baieztatzen digute. Horregatik guztiagatik, eskerrak eman nahi dizkiet azken lau urteetan EH Bilduren udal taldean aritu direnei, eta esan datozen lau urteetan ere lanean jarraituko dugula Zumaiaiko eta zumaiaarrentzat».



«Datorren agintaldia akordioarena izango da»

Ana Azkoitia

Azkoitiko EAJ

«Udal hauteskundeetan lortutako emaitzen balorazio positiboa egiten dugu, berritako Azkoitiko herriak gure taldearengan konfiantza agertu du, eta gu izan gara boto gehien eskuratu duen taldea. Beraz, alde horretatik, oso pozik gaude. Indarrak gelditu diren bezala ikusita, datorren agintaldia elkarriketarena eta akordioarena izango da, eta gu horretarako prest gaude. Gu izan gara boto gehien jaso dituen taldea, baina ikusten da aldaketa datorrela, eta aldaketa horrek erakutsiko digu beste bide bat egiten, elkarriketarekin eta akordioekin. Beste taldeekin hitz egiteko eta akordioetarako prest gaude».



«Argi dagoena da Zarauzko Udalean giltza garela alkatetzarako»

Gloria Vazquez

Zarauzko PSE-EE

«Bihotzez eskerrak eman nahi dizkiet botoa PSE-EEri eman dieten herritarrei. Hauteskundeetako emaitzen inguruan egiten dugun balorazioa oso ona da; azken finean, abstentzioa oso handia izan da, baina genuen ordezkari izateko eta emaitzari eustea lortu dugu, eta alde horretatik, pozik gaude».

Oraindik goiz da esateko, baina orain alderdien artean hitz egiten hasteko momentua da. Dena den, argi dagoena da Zarauzko Udalean giltza garela alkatetza nahi duenari gure babesa emateko, eta hemendik aurrera ikusi egin beharko da zer gertatuko den alde horretatik».



«Herriari dugun onena eskaintzeko lanean jarraituko dugu»

Anuska Esnal

Orioko EH Bildu

«Hunkituta gaude, herriaren babes handia jaso dugulako udal hauteskundeetan. Beti esaten dut bideak egiten gaituela, eta hori berresten dut. Pozik nengoen egindako bidez eta urte hauetan guztietan erakutsitako gaitasunaz. Pentsatzen nuen egindako lanak bere saria ekarriko zuela, baina ez genuen espero hamar zinegotzi lortuko genituenik. Umiltasunez ospatu dugu emaitza geure artean, baina hemendik aurrera egingo dugun lanean pentsatzen hasita gaude. Herriak babesa eman digu lanean jarraitzeko, eta hemendik aurrera, horretan saiatuko gara: herriari dugun onena eskaintzen».



«Udal talde guztiei mahai batean elkartzeko asmoa helarazi diegu»

Jose Joakin Etxaniz

Azkoitia Bai

«Hauteskundeetan lortu ditugun emaitzen balorazio oso ona egiten dugu; orain dela lau urteko bozetan dezentze jaitsi ginen, udalean laugarren indarra izateraino. Oraingoan, ordea, zinegotzi bakarra izatetik hiru hautesitazterara igaro gara. Gurea ez da izan Azkoitian boto gehien jaso dituen taldea, baina zeresana izango dugu udala osatzera koan. Bestalde, udalean gehien gozoki ez izatea garrantzitsua da, eta hori herriarentzat positiboa izango da. Guk aurreko ostiralean talde denei helarazi genien denok batera mahai batean biltzeko asmoa genuela, denok herriaren aurrean garbi azaldu eta zer egin erabakitze».



«Orain beste alderdiekin harremanetan jartzea dagokigu»

Xabier Txurruka

Zarauzko EAJ

«Egia esan, oso gustura gaude emaitzarekin. Hirugarren agintaldiz hamar zinegotzi izango ditugu, eta agintean gonda, kopuru horri eustea gustura egoteko arrazoiak ematen dizkigu. Lan asko egin dugu agintaldi honetan hainbat proiektu aurrera ateratzeko, eta beste batzuk abian dira. Orain, gainerako alderdiekin harremanetan jartzea dagokigu, Udal Gobernu osoa osatzeko edo alkatetza lortzeko; oraindik dena airean dago, eta Zarauzko alkatetza alderdi sozialistak erabakiko du».

Joera batzuen arabera eman du boza jendeak, baina EAJri irabazteko EH Bilduk ez du nahikoa boto lortu Zarautzen».



«Zinegotzi bat gehiago lortu dugu herritarren alde lan egiteko»

Itziar Murua

Zarauzko EH Bildu

«Orokorrean, EH Bildurentzat zoragarriak izan dira emaitzak, baita Zarautzen ere; gorakada izan dugu, eta ikaragarri murriztu dugu EAJrekin genuen aldea. Zinegotzi bat gehiago lortu dugu herritarren alde lan egiteko. Gogotsu gaude eta lehen baino indar pixka bat gehiagorekin, beste boto bat izango dugulako udalbatzarretan».

Udal bozetan izan den abstentzioarekin, lehengo babes berari eutsi diogu, eta emaitza ikaragarria da hori. Gainera, nabarmen-tzekoa da lortu ditugun botoekin mankomunitateko lehendakari-tza ere guk izango dugula, eta hori ere oso garrantzitsua da guretzat».

Espainiako Gorteetarako bozak, uztailaren 23an

–JULENEFRANTZESENA
Pedro Sanchez Espainiako Gobernuko presidentek aurreratu egin ditu Espainiako Gorteetarako hauteskundeak: uztailaren 23an, igandez, izango dira. Udazkenean ziren egitekoak izatez boz horiek, baina aurreratzeara

erabaki du, eta atzo goizean eman zuen horren berri joan den igandeko hauteskundeen emaitzak baloratzeko egin zuen agerraldian. Bozen deialdia, baina, gaur egingo du, atzoko Ministroen Kontseiluaren ezohiko bilera eta

gero. Hala, gaur bertan argitaratuko dute erabakia Espainiako Aldizkari Ofizialean. PSOEk emaitza txarrak lortu zituen igandean Espainiako udal eta erkidegoetarako hauteskundeetan, eta horiek bere gain hartu ditu Sanchezek. Esa-

terako, igandeko bozetan sozialistek Valentzia, Balearrak, Extremadura eta Aragoi galdu zituzten PPren mesedetan. PPK gehiengo osoa eskuratu du, gainera, Madrilgo Udalean, eta Valentziako, Sevillako eta Zaragozako udaletan ere nagusitu da.

Espainiako Gobernuak presidentek atzo jakinarazi zuenez, Espainiako estatuburuarekin bildu zen atzo goizean bertan. Atzo arratsaldean, berriz, Ministroen Kontseilua elkartu zuen, eta gorteak desegin zituen hauteskunde deialdia egiteko.

Foru bozetan EH Bildu izan da lehen indarra eskualdeko herri gehienetan

Udal hauteskundeetako joera berberak errepikatu dira, oro har, foru bozetan • Beizama izan da salbuespena, halabeharrez, herri plataforma ez delako aurkeztu foru bozetara

–J. FRANTZESENA-ONINTZA LETERRIETA

Gipuzkoan bezalatsu, Batzar Nagusietarako hauteskundeetan ere EH Bildu izan da nagusi Deba-Urola barrutian; alegia, beste herri batzuekin batera, Urola Kostako herriak biltzen dituen barrutian.

Urola Kostan ere EH Bilduk jaso ditu boz gehien, eta EAJ izan da bigarren indar bozkatue-na: 16.477 boto lortu ditu EH Bilduk, eta 14.548 boto, berriz, EAJk. PSE-EEk 2.538 boz jaso ditu Urola Kostako herrietan, Elkarrekin Podemos 1.224 boto, PPK 765, eta Stopek, azkenik, 166 boto.

Udal hauteskundeetako joera berberak errepikatu dira, oro har, foru bozetako emaitzetan ere eskualdean: EH Bilduk jaso ditu boto gehien Aizarnazabal-en, Azpeitian, Beizaman, Errezilen, Getarian, Orion, Zestoan eta Zumaian; EAJk, aldiz, Aian,



Herritarrak botoa emateko zain, igandean, Azkoitiko hautesleku batean. ANDONI ELDUAIEN

Azkoitian eta Zarautzen. Udale-tako eta Batzar Nagusietako emaitzak alderatzean, izan da salbuespenik ere; Beizaman, zehazki. Udal hauteskundeetan Aurrena Beizama Bai herri plataformak eskuratu ditu boto guz-tiak, baina herri plataforma iza-ki, hori ez da aurkeztu foru boze-tara, eta beraz, derrigorrean beste alderdi bat bozkatu behar izan dute herritarrek. EH Bildu hautatu dute 45 herritarrek, eta EAJ, berriz, 32 herritarrek. Stop plataformak ere jaso ditu 3 boto.

Aian ere udal hauteskundeetan herri plataforma bat aurkeztu da autengoan –Aiako Batzarre Burujabetza– eta horrek eragina izan du udal eta foru bozetan emaitzak alderatzera-koan. Bietan boto gehien EAJk jaso dituen arren, udal hauteskundeetan 100 botoren aldean izan da bi alderdi horien artean, eta foru hauteskundeetan, ber-ritz, 47 botoren aldean baka-rrik –2019ko foru hauteskundeetan 113 botoko aldean atera zion EAJk EH Bilduri–.

Antzekoa gertatu da Azkoitian ere. Azkoitia Bai Elkarrekin herri plataformak 810 boto eskuratu ditu udal bozetan –zinegotzi ba-kanretik hirura igo da–, eta EAJ-ren eta EH Bilduren arteko aldean 155 botoko aldean izan da, baina foru bozetan, berriz, 37 botoko aldean soilik –EAJk botoen %42,27 eta EH Bilduk botoen %41,56–. 2019an, berriz, 485 botoren aldean izan zuten bi alderdi horiek foru bozetan. Esan beharra dago, halaber, aurtengoan abs-tentzioa ere zazpi puntu handia-goia izan dela (%37,50) Azkoitian.

Azkenik, aipatzekoa da Elkarrekin Podemos koalizioak Urola Kosta eskualdeko herri txikietan PSE-EEk baino boto gehiago lor-tu dituela: Aian, Aizarnazaba-len, Errezilen eta Getarian, hain justu.

Udal eta foru hauteskundeak igarota, ekainaren amaieran osatuko dituzte Gipuzkoako Batzar Nagusiak, eta orduan auke-ratuko dute ahaldu nagusia ere.

FORU HAUTESKUNDEAK 2023

Herria	EAJ	EH Bildu	PSE-EE	PP	Elkarrekin Podemos	Stop	Errolda	Abst
Aia	472	425	19	13	30	23	1.573	%35,60
Aizarnazabal	81	254	9	1	10	3	565	%32,03
Azkoitia	2.205	2.168	453	83	197	20	8.492	%37,50
Azpeitia	2.810	3.384	237	80	119	17	11.389	%39,46
Beizama	32	45	0	0	0	3	111	%28,82
Errezil	101	197	0	0	3	1	448	%28,12
Getaria	721	838	31	6	40	7	2.180	%22,56
Orio	1.033	1.611	155	34	76	16	4.528	%33,21
Zarautz	4.846	4.272	1.108	482	533	29	18.304	%36,35
Zestoa	569	946	47	4	39	9	2.768	%39,16
Zumaia	1.678	2.337	479	62	177	38	7.855	%37,37
GIPUZKOA	105.437 (17)	120.578 (22)	51.591 (7)	20.574 (3)	21.283(2)	1.858 (0)	559.369	%40,10

*Iturria: Espainiako Barne Ministerioa.



Ulacia Zast taldeko jokalariek, lauko finala irabazi berrikan. EUSKAL SASKIBALOI FEDERAZIOA

Konpromisoaren emaitza

Ulacia Zast saskibaloit taldeak EBA ligara igotzea lortu du • Urtebete Gizonezkoen Lehenengo Mailan eman ondoren, kategoria berreskuratu du berriro ere

-ARITZ MUTIOZABAL Zarautz Saskibaloiko Gizonezkoen Lehenengo Mailako sailkapen fasea jokatu zuten duela bi asteburu Donostian, Aieteko kiroldegian, eta Ulacia Zast taldea garaile izan zen. Ondorioz, datorren denboraldian EBA ligan jokatzeko txartela erdietsi du Zarautzko gizonezkoen lehen taldeak. «Oso gustura gaude egin dugun denboraldiarekin. Bagenekien talde ona geneukala mailaz igotzeko edo, behintzat, hor gertu ibiltzeko. Azkenean, ezin izan dugu lehen postuan sailkatu ligan, baina lauko finalari esker, lortu dugu asmoak betetzea», nabarmendu du Ulacia Zast taldeko entrenatzaile Jokin Collantesek.

Sari potoloa da, baina badakite kategoria horretan jokatzeko zer den: «Urte batzuk egin ditugu maila horretan, eta badakigu zer den hori». Hala ere, maila berreskuratzeko «balentria handia» dela diote. Izan ere, iaz jaitzi ziren EBA ligatik Gizonezkoen Lehenengo Mailara, eta beren tokira itzultzea «nahitaiezko» xedea ez baldin bazen ere, taldeak erantzukizun handia hartu du.

«Iazko jokalarit multzoak jarraitu du aurtengo denboral-

dian, nahiz eta kategoria galdu genuen. Gauzak serio hartuta eta lanak ondo eginda, gure helburuetatik gertu ibiliko ginateke sinesten genuen, eta, azkenean, horrela izan da», kontatu du Collantesek. Denboraldi osoan zehar «txukun» aritu dira, eta azken zortzi jardunaldiak irabazita iritsi ziren lauko finalera. Sasoi bukaerako dinamika onak konfiantza handia eman zien azken txanpako bi partida erabakigarrietarako.

Bigarren txartela jokoan

Gizonezkoen Lehenengo Mailako liga Redline Mekanika Takek irabazi zuen, eta, hala, Tolosako (Gipuzkoa) taldeak zuzenean lortu zuen EBA ligara sailkatzea. Baina bigarren txartel bat zegoen jokoan, eta hori da Ulacia Zastek erdietsi duena lauko finalari esker, nahiz eta Valle de Egues izan faboritu nagusia hasieran. «Valle de Egues eta Tolosa taldeen artean egon da ligako lehen postua, eta azken jardunaldiarte ez da jakin bietako zein igoko zen zuzenean kategoriaz. Gu koska bat beherago geratu gara [hirugarren postuan], eta ikusten genuen lehen postura iriste-

jada konplexua izango zela. Beraz, lauko finalera bideratu genuen gure lana, guztiokongi iristeko», azaldu du Collantesek.

Atletico San Sebastian taldeak Euskadiko Kopa irabazi zuenez, finaleko gurutzaketan Loiola Indautxuren aurka jokatzeko tokatu zitzaion; hau da, sailkapeneko laugarrenak bosgarrenaren aurka neurtu zituen indarrak. Horrek, nolabait esateko, zarautzaren bidea zaildu zuen, Valle de Eguesen kontra jokatu behar izan zutelako finalerdiko neurketa. «Agian, aurkari gogorrena finalean tokatu beharrean, finalerdietan egokitu zitzaigun». Haien aurkako denboraldiko bi partidak galdu egin bazituzten ere, aurrera egin ahal izan zuten 57-67ko emaitzarekin. Final nagusian, beste horrenbeste egin zuen Ulacia Zastek: 67-78 irabazi zion Loiola Indautxuri. «Finala ere borrokatua izan zen, eta aurkariak ez zizkigun gauzak erraz jarri», dio entrenatzaileak.

Taldean sinesten

Balentria lortzeko garaian taldeak izan duen ezaugarri nagusia jokalarien «konpromisoa» izan dela azpimarratu du Collan-

tesek: «Urte luzez taldean sinetsi izan duen eta dena eman duen jendea da». Halaber, oso ongi ezagutzen dutela guztiok elkar gaineratu du: «Batzuekin, gainera, hamabost urte daramatzat saskibaloian jokatzeko, eta horrelako lotura estua duzun jokalariek ez dizute hutsik egiten».

Entrenatzaileak ere zerikusia izaten du halako lorpenetan, eta lauko finalean, entrenatzaile onenaren saria eman zioten Collantesi. Zarautzarrak umiltasun osoz jaso du aitortza, ez baitzuen inolaz ere espero: «Harritu egin nau, egia esan. Beste talde batzuk hobeto ibili dira ligan, eta haien entrenatzaileei emango zietela uste nuen. Baina beti da pozgarria eta eskertzekoa norberak egindako lana baloratzea eta saritzea. Edonola ere, guztia gainera gainetik talde lana da gehien estimatzen dudana, eta horrekin geratzen naiz».

Datorren denboraldiari begira jartzeko goizegi da oraindik, baina aurki hasiko dira jokalariei galdezka zer egiteko asmoa duten. «Espero dugu, aurten bezala, taldearekiko duten konpromisoari eustea eta jokalarit guztiek jarraitzea».

Mikel Odriozolak ez du ISBko gizonen lehen taldea gidatzen jarraituko

-JULENE FRANTZESENA

Azpeitia

Hiru urtez ISBko gizonen lehen taldeko entrenatzaile lanetan aritu ostean, kargua uztea erabaki du Mikel Odriozolak. Juaristi ISB taldeko bigarren entrenatzaile izan zen 2020-2022 eta 2021-2022 denboraldietan, eta bukatu berri den sasoi hasterako hartu zuen taldearen gidaritza. Hark azaldu duenez, baina, ISBn hiru urte eginda, agur esatea egokitzeko zaila sentitzen du. «Argi eduki erabaki hau soilik nire dela eta ez dela inolako arazorik egon».

Denboraldia ez da nahi bezala joan, ordea, taldearentzat; izan ere, Urrezko LEB Ligatik Zilarrezko LEB mailara jaitzi da Azpeitiko eta Azkoitiko taldea 2022-2023 sasoiari. Hala azaldu du erabakiaren berri emateko kaleratu duen idatzian: «Denboraldia ez da nahi genuen moduan bukatu, kirolak zati mingarri hauek ditu, baina bizitzak aurrera darrai eta hala izan behar du».

ISBn «espero ez zuen» esperientzia bizitzea egokitu zaiola esan du Odriozolak, eta eskerrak eman dizkie proiektuan sartu zuten kideei berarekin izan duten konfiantzagatik. «Ametsen ere ezingo nukeen irudikatu etorritako guztia, gozatutako guztia eta ikasitako guztia». Gainera, hiru urteotan bere ondoan egon diren klubeko kideak izan dituen gogor.

Halaber, eskerrak eman dizkie entrenatzaile taldea osatu duten kide guztiei, baita zaleei, klubeko boluntarioei, jokalarien gurasoei, zuzendaritzako kideei eta jokalariei ere. «Marea alde zein kontra edukita ere, beti babesten eta beti laguntzen aritu zarete, eta txikitatik zuetarik bat izango banintz bezala sentitu naiz».



Mikel Odriozola. L. GARCIA

Orio Eragin eskubaloi taldeak eta Jokin Altunak jaso dituzte Mirotza sariak

Garaikurra jasotzea «egindako lanaren aitortza» eta «ohorea» dela azaldu dute sarituek • Orio Eraginek eta Jokin Altunak Orio Arraunketa Elkartearen ibilbidea nabarmendu dute

—MIREIA GALARZA—ARITZ MUTIOZABAL Orio

Hiru urteko etenaren ondoren, gogotsu abiatu zuten ostiral arratsaldean Orio Arraunketa Elkartek antolatutako VIII. Garagardo Azoka. Irekiera ekitaldiarekin batera, Mirotza sariak banatu zituzten, eta aurten, Jokin Altuna pilotari amezketarrentzat eta Orio Eragin eskubaloi taldearentzat izan dira sariak. Garaikurra «ohorea» dela azpimarratu zuten sarituek. Xabier Sukiak gidatu zuen ekitaldia, eta lehenik eta behin, Orio Eraginek jokalariei eskatu zien oholtzara igotzeko. Kadete eta jubenil mailetan «erakustaldi bikaina» eman dute aurtengo denboraldian, eta hori aitortu nahi izan zion arraun elkarteak Orio Eragini. Elkarteko zuzendaritzako kide Maria Azkuek azaldu zue-



Orio Eragin taldeako kideak Mirotza saria jasotzen. ARITZ MUTIOZABAL

nez, Orion arraunak «indar handia» du, baina eskubaloia ere «atzetik bultzaka» dator. «Une batean herrian eskubaloian jokatzen zuen neska bakarra izan nintzen, eta atzera begiratzen dudanean, pozgarria da ikustea egoerari nola eman diogun buelta. Orain neskek eskubaloian joka dezakete heritik atera ere egin gabe». Orio Eraginen arrakastaren atzean «ahalegina eta lana» daudela adierazi zuen June Urbitarte elkarteak. «Arraun elkartearen erreferentia da kirol taldeentzat, jende asko mugitzea lortzen duelako, eta guk ere hori lortu nahi genuke, oriotarrek eskubaloia beren sentitza».

Ondoren, esku pilotak azkenaldian eman duen «espezialista onenetakoa» deitu zuten oholtzara, Jokin Altuna pilotaria. Buruz buruko finala jokatu du datorren asteburuan Elordiren aurka, eta modalitateko hirugarren txapela lortzen saiatuko da, oriotarrek emandako bultzadarekin.

Altunak ekitaldiaren ondoren azaldu zuen «polita eta pozgarria» dela «Orioko arraun elkarte bezalako» elkarte batek bere lana aitortzea. «Ibilbide luze kirol elkarte da, garaipen asko eta garrantzitsuak lortu dituena. Gipuzkoan kirolari asko gaude, eta ohorea da Mirotza saria niri ematea».



Itaiak antolatutako elkarretaratzea, Azpeitian. NEREA URANGA

Gasteizko hilketa matxista salatu dute hainbat herritan

—MAIALEN ETXANIZ

Gasteizen 32 urteko emakume baten hilotza aurkitu zuten igandean apartamentu hotel bateko logela batean, bortxa zantzuekin. Ertzaintzak adierazi duenez, indarkeria matxista gisa ikertzen ari dira kasua, eta haren bikotekide ohia atxilotu dute Zaragozan (Espainia). Bi asteren barruan Euskal Herrian gerta-

tzen den bigarren hilketa matxista da, eta hori salatzeako protestak egin dituzte eskualdeko herrietan. Atzo arratsaldean Azkoitia, Azpeitian, Zarautzen eta Zestoan egin zituzten elkarretaratzeak, eta gaur, Zumaian egingo dute protesta, Mugimendu Feministak deituta. Zumaiaiko Saregileen plazan elkartuko dira herritarrek, 20:00etan.

Iragarki laburra

Salgai

Azpeitia. Damaso Azkue auzoko taberna bat salgai dago. Interesatuek telefono zenbaki honetara deitu behar dute: 943-15 12 26.

Irudia Orio



Gustura ibili dira haurrak tirolinan eta eskalatzen

Igandean eman zion bukaera Orioko Talai Mendi elkarteak Kukuarri Asteari. Aurreko astean mendiari lotutako hainbat jarduerak egin zituen elkarteak, eta jende askok parte hartu zuen horietan. Larunbaterako, esaterako, eskalada saioa eta tirolina antolatu zituzten, eta igandean festa izan zen Kukuarriko tontorrean. ARITZ MUTIOZABAL



BADATOR Eskuratu
UDA! **GUKA**
produktuak

Informazio guztia:
www.urolakosta.hitza.eus/denda/

Mantangorri iristeko zain dira Sanjuandegin, jai giroan murgiltzeko

Larunbateko Umeen Egunarekin festetako ekintzei hasiera emanda, bihar jarraituko dute egitarauarekin Sanjuandegi auzoan • Igandera bitartean, izango da zertaz gozatua

-IHINTZA ELUSTONDO

Ekainaren hasieran ohikoa den moduan, festak ospatuko dituzte Azpeitiko Sanjuandegi auzoan. Motorrak berotzeko, Umeen Eguna egin zuten larunbatean, eta txikienek gozatu ederra hartu zuten. Asteburua igarota, bihar hasiko dituzte festen barruko gainontzeko ekintzak. Hain zuzen ere, bertso afaria egingo dute bihar, eta ordutik aurrera, igandera bitartean, egunero izango da zertaz gozatua auzoan. Besteak beste, ez dute hutsik egingo ostiraleko Mantangorriren iritsierak, larunbateko auzo bazkariak... Igandeko Tronboneitor saioa izango da aurtengo berrikuntza nagusia.



Umeen Egunarekin hasi zituzten Sanjuandegiko festak larunbatean. JULENE FRANTZESENA

Egitaraua

BIHAR, ASTEAZKENA

21:00. Bertso afaria izango da Sanjuandegiko Baigeran. Julio Soto eta Iker Zubeldia ariko dira kantuan.

EKAINAK 1, OSTEGUNA

19:00. Kantu Jira eta pintxo poteoa.
21:00. Mus txapelketako izen ematea.
22:00. Mus txapelketa. Ongi Etorri erretregian.
22:00. Iluntze musikatuaren barruan, bi kontzertu izango dira Jim Clark eta Garoa tabernen

atarian, Edu Zardoyarekin eta Sheldons taldearekin.

EKAINAK 2, OSTIRALA. GAZTEEGUNA

15:00. Kafea eta auzolana.
19:00. Mantangorriren ongietorria Jose Antonio Agirre plazan.
19:05. Kalejira buruhandiekin, erraldoiekin eta trikitilariarekin.
20:00. Batukada.
21:00. Gazte afaria.
23:00. Jose Mari Orbegozoren dantza eskolako kideen areto dantzen emanaldia.
23:00. Kontzertuak karpan: Manitu, Neallta Fola eta Laket.
Gainera, herriko hainbat DJ txosnagunean: Matx, Meriton,

P4ul, Enesound, Jos_U eta Kanpax.

EKAINAK 3, LARUNBATA. AUZO EGUNA

09:45. Xake txapelketako izen ematea.
10:00. Xake txapelketa.
11:00. Judo erakustaldia.
13:00. Udal Musika Bandaren kontzertua.
13:30. Triki-pintxo-poteoa.
15:00. Auzo bazkaria, Jose Antonio Agirre plazan.
17:00. IX. Trikiti Txapelketa.
19:00. Skapaie elektrotzaranga, erraldoiak eta buruhandiak.
20:00. Parrillada, Kontseilu Sozialistaren eskutik.

22:00. Kontzertuak: Denso Productions eta J Martina.
Ondoren, Tinz DJaren emanaldia karpan.

EKAINAK 4, IGANDEA

06:00. Txokolatada eta aerobik saioa egingo dituzte.
07:00. Zezenak izango dira Barronetxe auzunean.
09:00. Salda.
10:30. Tronboneitor.
12:00. Dantzari txikien emanaldia.
18:30. Herri kirol erakustaldia.
19:45. Boletoen zozketa.
20:00. Mantangorriren agur ekitaldia egingo dute Jose Antonio Agirre plazan.

Nuarben trinitateak ospatuko dituzte zapatuan hasita

-NEREA URANGA

Datorren larunbatean hasiko dituzte Trinitate jaiak Azpeitiko Nuarbe auzoan. 16:00etan festetako txupinazoa botako dute, eta egun horretan ez ezik, igandean eta astelehenean ere gauzatuko dituzte ekintzak han. Ez da falta-ko erromeriarik, dantza saiorik eta haurrentzako jolasik.

Egitaraua

EKAINAK 3, LARUNBATA

6:00. Txupinazoa.
16:30etik 18:30era. Sokamuturra.
19:00. Kantu Jira poteoa.
20:30. Herri afaria.
23:30. Mirari Azkune eta Aintzane Agirrebeña trikitilariarekin erromeria.

EKAINAK 4, IGANDEA

13:00. Jose Mari Orbegozoren dantza eskolako areto dantzen emanaldia.
13:00. Urtero herriari eta bisitariei eskaintzen zaien luntxa.
16:30etik 20:00etara. Puzgarriak.
18:00. Porru DJa.
Afal aurretik eta afal ondoren, Izer eta Alabier trikitilariarekin erromeria.

EKAINAK 5, ASTELEHENA

17:30. Ume jolasak, tailerrak eta txokolatada.
Ilunabarrean, Laja eta Narbaza trikitilariarekin erromeria.

Eskelak

Hilberriak
Urteurrenak
Eskertzak

UROLA KOSTAKO HITZAn jarrita,
Goierriko Hitzan eta Atarian DOAN

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Eskelak 18:30ak arte hartzen ditugu / urolakosta@hitza.eus / Tel.: 943-89 00 17

Eskelak orain
merkeago

TXIKIA (82mm x 64mm): 120 € / *Harpidedunentzat: 60 €

HANDIA (124mm x 64mm): 178 € / *Harpidedunentzat: 86 €

ESKERTZA (38mm x 64mm): 60 € / *Harpidedunentzat: 30 €

*Harpidedunak HITZAko bulegotik pasa
Bez barne

Agenda

Gaur, asteartea

Hitzaldia

Azkoitia. Maskulinitateak, erantzukidetasuna eta zaintza lanak hitzaldia, Karlos Garcia Gizonduzeko idazkari teknikoaren eskutik. 18:30ean, Elkartegune-ko Oteiza aretoan.

Ikus-entzunezkoak

Azkoitia. Sparta filmaren zine-foruma, 20:00etan, Baztartxo antzokian.

Zarautz. La quietud en la tormenta filma bertsisio originalean, 19:30ean, Modelo aretoan.

Bihar, asteazkena

Hitzaldia

Azkoitia. Migrazio prozesuak: zurrumurruak, pertzepzioak eta jarrerak hitzaldia, Begirune fundazioko Xabier Aierdiren eskutik. 19:00etan, Elkartegune-ko Oteiza aretoan.

Saioa

Azpeitia. Guraso Eskolak: neren gurasoen eta Gaztelekuko hezitzaileen saioa, 18:00etan, Azoka Plazan.

Getaria. Euskal Astearen barruan, irrintziari lotutako saioa: 19:00etan, *Erraiak* dokumental emanaldia, eta ondoren, irrintzi tailerra, Iturzaeta aretoan.

Festak

Azpeitia. Sanjuandegi auzoko festen barruan, bertso afaria, Iker Zubeldiaren eta Julio Sotoren eskutik. 21:00etan, Baigeran.

Ekainak 1, osteguna

Musika

Zestoa. Ertxiña musika eskolako emanaldia, 18:30ean, udaletxe azpian.

Ikus-entzunezkoak

Zumaia. Holy Spider filmaren zine-foruma, 19:00etan, Aita Mari aretoan.

HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Belaunaldi desberdinetako trikitizaleak, II. Trikiti Egunean

Larunbatean II. Trikiti Eguna ospatu zuten Azkoitian, Trikitigirok eta udalak antolatuta
● Adin guztietako trikitizaleek egin zuten bat, eta trikiti doinuak bete zituzten kaleak

-MAIALEN ETXANIZ - ANE OLAIZOLA Azkoitia

Soinu eta pandero doinuek hartu zituzten larunbatean Azkoitiko kaleak; izan ere, II. Trikiti Eguna ospatu zuten Trikitigiro elkartek eta Azkoitiko Udalak antolatuta. Beste urte batez, adin eta belaunaldi desberdinetako trikitizaleek bat egin zuten festarako, eta giro paregabean ospatu zuten II. Trikiti Eguna, eguraldiak ere gogotik lagundu baitzuen.

Antolatzaileek goizetik iluntzera arteko egitaraua zuten prestatua larunbaterako, eta aurreneko edizioan bezala, dozenaka trikitilari zein trikitizalek erantzun zioten egitasmoari. Goizean, San Martin auzoan elkartu ziren trikitilariak, eta hainbat taldetan banatuta, auzoz auzo ibili ziren 11:30etik aurrera, hala nola Ipintzan, Jausoron eta Santa Klaran. Soinua eta panderoa eskuetan hartuta, trikiti hotzak zabaltzen aritu ziren herriko txokoetan, eta, ondoren, 13:30ean, Julio Urkixo kalean elkartu ziren kalejira handia egiteko. II. Trikiti Egunean parte hartzerantz elkartu ziren lagun guztiak elkartu ziren kalejiran, eta Plaza Berrin hainbat pieza eskaini ostean, plazan amaitu zuten ibilbidea. Han ere hainbat pieza jo zituzten eguzki galgatan, eta jarraian, taldeko argazkia atera zuten.

Erromeria, plazan

15:00etan, berriz, herri bazkaria egin zuten plazan bertan, eta aurretik, 150 lagunetik gora elkar-tu dira bazkarirako. 18:30etik 22:00etara bitartean, berriz, erromeria egin zuten leku berean. Bazkarian parte hartu zuten trikitilariak egin zuten erromeria, eta horiek txandaka eta nahieran igo ziren plazan jarritako oholtzara hainbat pieza es-



Goian, trikitilariak San Martinen, Trikiti Egunari hasiera emateko prest; behean, erromeria, plazan. M.E.

kaintzera. Egitasmoa borobiltzeko, gainera, trikitilariak erromeria egin zuten talde txikietan banatuta, eta 22:00ak arte luzatu zuten festa.

Trikitigirok azaldu duenez, arratsaldeko erromeriaren asmoa zen oholtzan aritzeko zailduta ez zeudenei horretarako aukera ematea. «Erromeria itxi bat egin beharrean, bazkariko tartean erabaki genuen zer dina-

mika izango zuen horrek. Nahi zuenak izan zuen piezak jotzeko aukera, eta trikiti ikasleak, senideak... ikusi genituen elkarrekin oholtzan», azaldu du Ibon Errazu antolatzaileak. Haren arabera, «naturalki sortutako erromeria» eskaini zuten, eta «transmisioaren erakusgarri» izan zen saioa.

Antolatzaileak gustura dira larunbateko egunak eman zuena-

rekin, aurreikusita bezala eraman baitzuten aurrera egitasmoa. Ordea, egun berean Albizturren (Gipuzkoa) ere Trikiti Eguna ospatu zuten, eta Trikitigiro jakitun da horrek eragina izan duela aurtengo edizioak izan duen erantzunean. Dena den, aurreratu dute datorren urtean ere maiatzeko azken larunbatean ospatuko dutela Azkoitiko Trikiti Eguna.